

**UNIBERTSITATE HEZKUNTZAREN
KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN
GIDALIBURUA**



**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

2018 EKAINA

KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN GIDALIBURUA

Glosarioa, laburdurak eta akronimoak

Akronimoa	Deskripzioa
Admin.	Administrazioa
Kap.	Kapitulua
KOD.	Kodea
COFIP	Heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioa.
Koord.	Koordinatzailea
DPTU.	Departamentua
Zuz.	Zuzendaria
EUSKALIT	Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
PI	Prestakuntza iraunkorra
EF	Enpresagintza Fakultatea
PA	Prestakuntza Arautua
HUHEZI	Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
AIJ	Ate Irekien Jardunaldia
LAGUN- ARO	Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea
KEK	Kudeaketa Eredua Korporatiboa
MGEP	Mondragon Goi Eskola Politeknikoa
MONDRAGON	Mondragon Korporazioa
MU	Mondragon Unibertsitatea
ZAL	Zerbitzu eta Administrazioaren pertsonala
GAL	Gradu Amaierako Lana
IIP	Ikertzaile eta Irakasle pertsonala
KP	Kudeaketa Plana
Prg.	Programa
HE	Hausnarketa estrategikoa
Koop.E.	Kooperatiba Elkartea
KBBS	Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema
SI	Informazio Sistemak
SPYRO	Programa informatikoa Finantza Kudeaketarako, erosketa eta salmentetarako
UNIBASQ	Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia

AURKIBIDEA

DOKUMENTUAREN AURKEZPENA	1
1.- AURKEZPENA	2
1.1. FAKULTATEAREN OINARRIZKO DATUAK	2
1.2. HISTORIA	2
1.3. JARDUERAK	4
1.4. ERAKUNDE EREDUA	5
1.4.1. Antolaketa egitura eta jarduerak	5
1.4.2. Pertsonak.....	12
1.5. GOBERNU ETA KUDEAKETA ORGANOAK	12
2. KUDEAKETA EREDUA	13
2.1. ESTRATEGIA	13
2.1.1. Misioa	13
2.1.2. Bisioa eta Balioak.....	13
2.2. KUDEAKETA SISTEMA.....	16
2.3. ENPRESAGINTZA FAKULTATEAREN KALITATE POLITIKA.....	17
2.4. INTERES TALDEAK.....	19
2.5. PROZESUEN BIDEZKO KUDEAKETA.....	19
3. KUDEAKETA SISTEMAREN GESTIO DOKUMENTALA.....	29
3.1. HELBURUAK ETA JOKAERA IRIZPIDEA GESTIO DOKUMENTALERAKO	29
3.2. KALITATEAREN BARNE BERMEAREN GIDALIBURUAREN GESTIO DOKUMENTALA	29
3.3. PROZESUEN, ADIERAZLEEN ETA BESTE DOKUMENTUEN GESTIO DOKUMENTALA	29
3.4. KBBS-AREN KUDEAKETA ETA HEDAPEN SISTEMA	30
4. NEURKETA, ANALISIA ETA HOBEKUNTZA	32
5. ERANSKINAK	33
5.1. I. ERANSKINA PROZESUETAN PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK	33
5.2. II. ERANSKINA. PROZESUEN BERRIKUSPEN AKTA.....	39

Taulen aurkibidea

1. Taula. Berrikusketen historiala	1
2. Taula. Enpresagintza Fakultateko jarduerak	4
3. Taula. Fakultateko Negozio Unitateen eta Jarduera-Programen erlazioa.	8
4. Taula. Prozesuetan parte hartzen duten taldeak.....	10
5. Taula Enpresagintza Fakultateko pertsonak	12
6. Taula Prozesuen irismena Fakultateko jardueretan	20
7. Taula Enpresagintzaren Prozesuak.....	21
8. Taula. Enpresagintza Fakultatearen prozedurak.....	27
9. Taula. Politikaren eta kalitate helburuen hedapena interes taldeei. Barne eta kanpoko komunikazio kanalak.....	31

Irudien aurkibidea

1. Irudia. Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza Gunea, Koop. E.	3
2. Irudia. Enpresagintza Fakultateko Organigrama	6
3. Irudia. Kudeaketa sistema	16
4. Irudia. Prozesuen mapa.....	22
5. Irudia. Prozesuaren fitxa	24
6. Irudia. Fluxu diagramen sinbologia	25
8. Irudia. Prozedura fitxa	28

DOKUMENTUAREN AURKEZPENA

Dokumentu honek, Unibertsitate prestakuntzarekin erlazionatuta dagoen Enpresagintza Fakultatearen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema erakusten du; honetarako, UNIBASQ-en AUDIT programaren norabideak jarraitzen dira.

1. Taula. Berrikusketen historiala

Berrikuspena	Data	Aldaketa
0	2011-09-01	Hasierako bertsioa. I dokumentua- KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN DISEINUA.. II dokumentua- Enpresagintzaren KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMA
1	2014-12-12	Hasierako bertsioaren I eta II dokumentuen uztarketa. Erakundearen egituraren aldaketa. Datuen eguneraketa (Koordinazio taldea, erakundearen egitura, taldea eta agenteak, Indarrean dauden titulazioak...) Urte akademikoei dagokien datuen ezabapena eta Fakultateko jarduerarekin erlazionatutako informazioaren generalizazioa (titulazioak, irakatsitako ordu kopurua, kongresuak...) Prozesu eta prozeduren berrikuspenaren kopuruaren eguneraketa. Hizkuntza inklusiboaren erabilera.
2	2016-05-10	Datuen eguneraketa: Langileak, indarrean dauden titulazioak, intereseko taldeak, taldeak eta agenteak. Prozesu eta prozeduren berrikuspenaren kopuruaren eguneraketa. Hiru prozesu berrien inkorporazioa, dagozkien .prozedurekin.
3	2018-01-12	Datuen eguneraketa: Langileak, intereseko taldeak, taldeak eta agenteak... Erakundearen egituraren eguneraketa eta horrek ekarri dituen aldaketak. 2016-2019 plan estrategiko berriaren informazioaren eguneraketa. Prozesu eta prozeduren kopuruaren eguneraketa, prozesu mapa. Hiru prozesuren ezabapena. Prozesu eta prozedura baten inkorporazioa.

1.- AURKEZPENA

Enpresagintza Fakultatea (Mondragon Unibertsitatea), goi mailako prestakuntza ematen duen erakunde akademikoa da. Bere titular juridikoa, Gipuzkoako Oñatin dagoen Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza Gunea, Koop. Elkartea da. Mondragon Unibertsitatearen eta Mondragon Korporazioaren barruan aurkitzen den izaera integraleko, irabazi asmorik gabeko eta erabilgarritasun publikoa duen irakaskuntza kooperatiboa da. Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 legearen printzipioak eta xedapenak jarraitzen dituena.

Kooperatiba honen helburu soziala hau da, heziketa garapena eta pertsonen prestakuntza integrala gizartearen zerbitzurako. Horretarako, kontuan hartuko du bere kokapenaren ingurune sozioekonomikoaren eta soziokulturalaren ezaugarriak. Fakultatearen jardura nagusienak unibertsitate prestakuntza eta enpresa esparruko profesionalentzako prestakuntza dira, bereziki, kudeaketarako eta ekintzailetasunerako talentuaren sorreran eta garapenean. Bere eginkizunak dira ere, enpresa jardura berrien sustapena, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia enpresari. Ikasleari, kalitatezko prestakuntza eskaintzen dio, bere jardueren berrikuntza jarraian oinarrituta dagoena eta enpresen beharrei egokitzen dena.

1.1. FAKULTATEAREN OINARRIZKO DATUAK

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea- Facultad de Empresariales.

Oñatiko kanpusa:

Helbidea: Ibarra Zelaia, 2, Oñati - Gipuzkoa.
Telefonoa: 943 718009
Faxa: 943 718162
Emaila: informacion@enpresagintza.mondragon.edu

Bidasoako kanpusa:

Helbidea: Leandro Agirretxe plaza, 1 Irun – Gipuzkoa
Telefonoa: 943 639129
Faxa: 943 667022
Emaila: bidaso@bidaso.eteo.mondragon.edu

1.2. HISTORIA

Enpresagintzako Fakultatea, Mondragon Unibertsitatearen barne dauden Goi Mailako Heziketako lau zentroetako bat da. Besteak hauek dira: MGEP- Injeniaritzako Goi Mailako Eskola Politeknikoa, HUHEZI, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta BCC-Basque Culinary Center- Gastronomia Zientzien Fakultatea.

1960an, Don José María Arizmendiarridak sustatutako gazte talde baten inizatibari esker, ETEO sortzen da. Don José María, Mondragon Esperientzia kooperatiboaren inspiratzaile eta sustatzaile nagusia izan zen. Jarduera, Lanbide Heziketako enpresa-administrazio arloan zentratu zen hasiera batean. Gero, 1975an, Enpresa Zientzien Diplomaturako Unibertsitate ikasketak hasi ziren eta azkenik, 1997an, Mondragon Unibertsitate barruan dagoen Enpresagintza Fakultatea izatera pasa zen.

Beraz, izaera integraleko, irabazi asmorik gabeko eta erabilgarritasun publikoa duen irakaskuntza kooperatiboa da. Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 legearen printzipioak eta xedapenak jarraitzen dituena, eta honekin lotutako lege arauak eta Estatutuak ere bai.

2009ko urrian eta unibertsitatearen zein Fakultatearen hausnarketa estrategikoaren ondorioz, onartu egin zen Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen eta MIK (Kudeaketan ikerketa zentroa) Koop. Elkarteen bateratasunaren proiektua, Fakultateko Ez Ohiko Asanblada Orokorrean. Konbergentzia honekin, MIKek progresiboki kontzentratu egingo du unitate bakar batean bere jarduera ikertzailea eta Enpresagintza Fakultateko ikerketa unitateak ordurarte garatzen zuena. Guzti honi esker, proiektua sustatzeko dimentsionamendua eta gaitasun kontzentrazioa lortu zen. Gaur egun, ikerketa, transferentzia eta in-company prestakuntza, I+T-MIK negozioaren bidez burutzen da.

Proiektu honen onarpenak, Fakultatearen egitura juridikoaren birmoldaketa sakona ekarri zuen. Lehen mailako bi kooperatibekin osatuta egotera pasatu zen: MU Enpresagintza, Koop. E. (Lehen ETEO, Koop. E.) eta MIK, Koop. Elkartea. Bi kooperatiba hauek, bigarren mailako kooperatiba berri bat sustatu eta osatu egin dute, Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza Gunea izenpean. Azken hau, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen titularrak izateaz gain, proiektu komunaren kohesioaren bermea ere bada.

1. Irudia. Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza Gunea, Koop. E.



Egitura berri honen barnean, gaur egungo Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea, goi mailako erakundea da, eta honen titular juridikoa, Oñati-Gipuzkoan eratuta dagoen

MONDRAGON UNIBERTSITATEA ENPRESAGINTZA GUNEA KOOP. ELKARTEA da. Berau, bi kanpusetan kokatuta dago: Oñatiko kanpua eta Bidasoakoa.

Bere jarduera, enpresa mundura bideratuta jarraitzen du -kudeaketa eta ekintzailetasuna-. Batetik, aktibitate akademikoak daude, gradu, graduondoko, prestakuntza iraunkorra eta Doktoretza mailan, eta bestetik, hauek konbinatu egiten dira, enpresei, heziketa zentroei, eta beste erakunde publiko eta pribatuei eskainitako Ikerketa eta Zerbitzu prestazioarekin.

2013 urtean Mondragon Unibertsitateak, egoitza berri bat inauguratu zuen Bilbon: Berrikuntza Faktoria (BBF). Enpresagintza Fakultateak, egoitza honetan, bere graduetakoa bat eta bi master ematen ditu, eta baita profesionalentzako hainbat jarduera. Beraz, bere aktibitatea, Oñati eta Bidasoako kanpusetan zein Bilboko egoitzan garatzen da.

1.3. JARDUERAK

Fakultateak, prestakuntza eskaintza zabala dauka, goi mailako heziketa zikloetatik hasita, unibertsitate titulazioetaraino, graduondoko masterrak eta doktoretza programa barne. Gainera, oinarritzko ikerketara eta transferentzia ikerketara dedikatzen diren 4 ikerketa lerro ditu.

2. Taula. Enpresagintza Fakultateko jarduerak

Prestakuntza arautua	Unibertsitarioa ez den goi mailako prestakuntza - Goi Mailako Heziketa Zikloak	-Administrazio eta Finantzak -Salmenta eta merkataritza espazioen kudeaketa
	Unibertsitate prestakuntza ofiziala	Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan gradua Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan gradua
	Master Ofizialak	-Unibertsitate master ofiziala Enpresen Zuzendaritzan (MBA) - Online Unibertsitate master ofiziala Ekonomia Sozialesan eta Enpresa kooperatiboan. - Unibertsitate master ofiziala kontabilitate eta Finantza Zuzendaritzan - Unibertsitate master ofiziala Marketin Digitalean - Unibertsitate master ofiziala Erakundeen nazioartekotzean. -Unibertsitate master ofiziala Pertsonen talentuaren kudeaketa estrategikoan
	Doktoretza Programa	Erakundeen Kudeaketa Aurreratuan eta Ekonomia Sozialesan Doktoretza Programa

Prestakuntza iraunkorra profesionalentzat	Masterrak, kurtso adituak eta aurreratuak (Mondragon Unibertsitateko titulu propioak)	-MBA Executive - Persona eta Taldeen Coaching-ean Master Profesionala -Barne Ekintzailertza eta Berrikuntza kolaboratzailean masterra -Team Mastery Program for team coaches. -Kurtso Adituak eta kurtso Aurreratuak: Enpresa kudeaketa, Marketin, Pertsonen kudeaketa eta Finantzak.
	Prestakuntza iraunkorra	-Formatu irekia In Company formatua - Ad-hoc kurtsoak enpresa kooperatiboen kudeaketari buruz nazioarteko talderentzat.
Ikerketa	Ikerketa, garapena eta transferentzia.	-Oinarrizko ikerketa bideratua -Transferentziaren ikerketa -Ekoizpen zientifikoa

1.4. ERAKUNDE EREDUA

Gaur egun, Fakultatearen kudeaketa ereduak, beraz integratzen duten pertsonen partaidetza oinarritzen da eta lerrokatuta dago MONDRAGON Korporaziotik definitutako kudeaketa ereduarekin.

Bere funtsezko elementu batzuk hauek dira:


- Konfiantza pertsona eta taldeetan.
- Komunikazio ona: gardena, iraunkorra eta norabide guztietan.
- Talde lana, Ezagutza arloak eta negozio propioak eraginda:
- Taldeak, arduradunak eta autonomoak dira beharrezko proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko, eta ezagutza arloekin zein negozioekin koordinatuko dira, euren proiektuak aurrera atera ahal izateko. Pertsonen partaidetza eta hauen kompetentzia profesionalen eta pertsonalen garapena, funtsezkoak izango dira emaitza onak lortzeko.
- Bezeroenganako eta Fakultateko interes talde guztiei zuzendutako orientazioa, ezinbesteko baldintza bezala, helburu estrategikoak eta urterokoak lortzeko.
- Berrikuntza eta egokitzapen jarraia.

1.4.1. Antolaketa egitura eta jarduerak

Enpresagintza Fakultatea, organigrama matrizial batean egituratzen da, eta hiru negozio koordinazio ditu, bi laguntza koordinazio eta ezagutza lau arlo. Honetaz gain, jarduera guztiei zeharkako eran zerbitzua ematen dien Zerbitzu eta Administrazio pertsonala dago.

Jarraian, Enpresagintza Fakultateko organigrama ikus daiteke:

2. Irudia. Enpresagintza Fakultateko Organigrama



Enpresagintza Fakultatearen jarduera, beraz, hiru Negozio Unitatetan edo Koordinaziotan egituratzen da. 2016ko azarotik aurrera, hauek dira erakundean dauden hiru negozioak:

- ✓ Kudeaketarako Talentuaren sorrera eta Garapena Koordinazioa
- ✓ Ekintzailtza – MTA Koordinazioa
- ✓ Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentzia –Koordinazioa

Hiru Negozio koordinazio hauek, Fakultateko Koordinazio Kontseiluaren barruan dauden beste laguntza koordinazioekin osatzen dira.

- ✓ Dekanoa – Koordinatzaile orokorra: Lander Beloki.
- ✓ Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentziaren Koordinatzailea: David Sánchez
- ✓ Kudeaketarako Talentuaren sorrera eta Garapenaren Negozioaren Koordinatzailea: Mikel Mesonero.
- ✓ Ekintzailtza-MTA Negozioaren Koordinatzailea: Aitor Lizarza.
- ✓ Pertsonen Garapenaren eta Kudeaketa Ereduaren Koordinatzailea: Eunate Elio
- ✓ Finantzen Kudeatzailea: Marilu Murua.

Era berean Irakasle-Ikertzaiak (PDI), lau ezagutza arlotan antolatzen dira. Arlo bakoitzak arduradun bat dauka. Honek, Fakultateko esparru guztietan, bere ezagutza arloan parte hartzen duen pertsona bakoitzaren jarduerak koordinatzen ditu

Fakultateko ezagutza arloak eta bere arduradunak hauek dira:

- ✓ Estrategia aurreratua: Bertan, hurrengo esparrutan espezialistak diren Irakasle-Ikertzaiak kokatzen dira: Estrategia, Marketin (digitala), Bezeroa, Nazioartekotzea, Elkarren arteko Kooperazioa, Berrikuntza, Hizkuntzak. Arduraduna: Mariangélica Martínez
- ✓ Ekintzailtza-MTA: Ekintzailtza eta Barne ekintzailtza esparrua. Arduraduna: Begoña Ugarte
- ✓ Pertsonak Lankidetzan: Lidergoa eta Ownership: Talentuaren kudeaketa, Giza Baliabideak, Kooperatibismoa, Ekonomia Soziala, Partaidetza, Coaching eta Lidergoa, Zuzenbidea. Arduraduna: Saioa Arando
- ✓ Ekonomia eta Finantzak: Finantzak, Kontabilitatea, Zerga sistema, Ekonomia Aplikatua. Arduraduna: Beñat Herce.

Egituraketa, ezagutza arloen arabera, 2014ko uztailean burutu zen. Zeharkako egitura berri hau, pertsonak kudeatzeko egokiena ikusten zelako aukeratu zen (Hurbilketa Integrala). Egitura honek, ezagutza arloko arduradunek, Fakultateko jardueren ikuspegi osoa izatea ahalbideratzen du eta baita bere arloko pertsonen egindako zereginena ere. Ezagutza arloko arduradunek, parte hartzen dute pertsonen garapenaren eta planifikazioaren mahaian (Pertsonen Garapenaren Koordinatzailearekin batera). Hemen, puntualki, negozio koordinatzaileak egoten dira, euren negozioen jokaera eta erronka garrantzitsuenak partekatzeko. Era berean, hainbat lan bilera egoten dira urtean zehar, arloko arduradunen eta negozio koordinazioen artean, garatzen ari diren proiektu eta jardueren garapenerako.

Bestalde, irakasleak ez diren langileak edo Zerbitzu eta Administrazio Langileak (ZAL) hurrengo laguntza zerbitzutan banatzen dira:

- ✓ Administrazioa: Hamaika pertsona daude. Bere arduraduna Finantzen Kudeatzailea da.
- ✓ Idazkaritza Akademikoa: sei pertsonako taldea
- ✓ Informazio Sistemak: bi pertsonako taldean
- ✓ Liburutegia: bi pertsonako taldea
- ✓ Unibertsitate-Enpresa harremanak: lau pertsonako taldea
- ✓ Marketin eta Komunikazioa: pertsona bat.
- ✓ Eraikinen kudeaketa- Eraikin Taldea: sei pertsonako taldea
- ✓ Nazioarteko harremanak: dedikazio partziala daukaten bi pertsona
- ✓ Deporte eta Kultura: Athlon enpresari azpikontratututako zerbitzua. Fakultatean dedikazio partziala daukan pertsona bat.

Jarraian, Fakultateko jarduerak, produktuak eta programa espezifikoak nola egituratzen diren negozio bakoitzean ikusten da:

3. Taula. Fakultateko Negozio Unitateen eta Jarduera-Programen erlazioa.

Negozio Unitateak	Programak/Produktuak	Programa espezifikoak
KUDEAKETARAKO TALENTUAREN SORRERA ETA GARAPENA KOORDINAZIOA	Gradu Ofizialak	MyGADE
	Espezializaziorako Master Ofizialak	Marketing Digitaleko masterra Erakundeen Nazioartekotzean Masterra Kontabilitate eta Finantzetan Masterra Pertsonen talentuaren Kudeaketa Estrategikoak Masterra
	Heziketa Zikloak (LH2020)	Administrazio eta Finantzak Salmenta kudeaketa
	Profesionalentzako masterrak Ofizialak(O), Propioak (P)	MBA (O) MKOOP (O) Executive MBA (P) Pertsona eta Taldeen Coaching-ean Masterra (P) Kurtso Adituak eta Espezializazio Diplomak (P)
	Doktoretza Programa	Erakundeen Kudeaketa Aurreratua eta Ekonomia Soziala
MONDRAGON TEAM ACADEMY – MTA	Gradu Ofizialak	LEINN - Euskadi LEINN – Kanpoko laborategiak
	Profesionalentzako masterrak Ofizialak(O), Propioak (P)	Barne ekintzailtzan Masterra - MINN (P) Team Mastery (P)
	MTA Global support	LEINN – Kanpoko laborategiak MINN – Kanpoko laborategiak
EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA	Ikerketa Transferentzia In-company prestakuntza	

Aurreko taulan jasotako jardueren kudeaketa egokia burutu ahal izateko, koordinazio edo negozio unitate bakoitzak, talde egitura espezifiko bat dauka.

KUDEAKETARAKO TALENTUA KOORDINAZIOA

- Talentuaren Sorrera eta Garapenaren negozioaren titulazio taldeak: Bere jarduera egiten duten talde autonomoak sortu dira, baina negozio koordinazioak hurbiletik jarraitzen ditu. Titulazio bakoitzak, traxioa egiten duen koordinazio talde bat dauka. Talde honen pertsona kopurua aldatu egingo da titulazioaren konplexutasunaren arabera.
- Doktoretza Batzordea: Zazpi pertsonako talde batekin osatuta: lau doktore, koordinatzaile zientifikoa eta doktoretzari dagokiona, Enpresagintzako Idazkari Akademikoa eta 3. ziklotako idazkaria.
- Gainera, aldizkako bilerak egoten dira negozioen koordinazioaren eta ezagutza arloen pertsona arduradunen artean.

EKINTZAILTZA – MTA KOORDINAZIOA

- LEINN laborategien Captains Taldea: Euskal Herriko hiru laborategien arduradunek hartzen dute parte.(Oñati, Bidasoa, BBF) eta ekintzailtzaren arduraduna.
- Laborategi taldeak: Hemen parte hartzen dute laborategi bakoitzaren coach-ek eta lab bakoitzean titulua koordinatzen duen pertsona (captain)
- Global Support taldeak: Euskal Herritik kanpoko laborategiak koordinatzeko taldeak.

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA KOORDINAZIOA

- Transferentzia eta Ikerketa Taldea: I+T esparruan, negozioaren funtsezko lan lerrotan espezializatuta dauden AD hoc lan taldeak osatzen dira. Hemen, espezializazio esparru zehatz baten profesionalentzako, ikerketa, transferentzia eta prestakuntza proiektutan parte hartuko duten pertsonak egongo dira. Lan lerro hauek dinamikoak direnez, merkatuaren aldaketetara eta beharretara egokitzea lortzen dute. Orain arte, garapen handiagoa izandako lan lerroak, hurrengoak ditugu: Negozio-Serbituzio ereduak, Ekintziletza Ekosistemak, Hazkunderako Finantzak, Lidergo eta Kultura, Talentuaren Kudeaketa, Ikasketa Estrategiak, Bezero Digitala eta Global 2B2, Elkarren arteko kooperazioa eta Lehiakortasuna.
- Gainera, aldizkako bilerak egoten dira negozioen koordinazioaren eta ezagutza arloen pertsona arduradunen artean.

Jarraian, modu eskematikoan eta alfabetikoki ordenatuta, Fakultateko kudeaketan eta aktibitatean parte hartzen duen talde multzoa ikus daiteke; denak, prozesuen parte aktiboa edo agenteak direlarik. Agente Guztiak eskuliburuaren amaieran zehazten dira.

4. Taula. Prozesuetan parte hartzen duten taldeak

AGENTEA/TALDEAK	OSAKETA	EGINKIZUN NAGUSIA
Ezagutza arloak	Dagokion irakasle-ikertzailea (PDI) , espezializazio arloaren arabera sailkatuta.	Enpresagintzako irakasle eta ikerketa jardueretan parte hartu, negozioekin zein gainontzeko ezagutza arloekin koordinatuz. Proposatu eta diseinatu produktu/proiektu berri posibleak bere ezagutza arloaren barruan. Bere ezagutza arloari dagokion jardueren banaketaren planifikazioan parte hartu. Titulu baten ezagutza arloan eta titulu artean, bermatu irakasgaien koordinazioa, bikoiztasunak eta solapamenduak ebitatzeko.
Batzorde Akademikoa	Hauekin osatuta: Talentuaren Koordinatzailea, MTA-ren Koordinatzailea, Koordinatzaile Zientifikoa eta Doktoretza, Idazkari akademikoa, Pertsonen garapenaren eta Kudeaketa ereduaren Koordinatzailea, eta Dekanoa.	Onartu ikasketa programen proposamen edo aldaketak. Onartu Fakultateko ikasketen Arautegi Akademikoa. Tituluek bete behar dituzten kalitate irizpideak ezarri eta zaindu.
Kalitate Batzordea	Hauekin osatuta: Dekanoa. Talentuaren Koordinatzailea, MTA-ren Koordinatzailea, Idazkari akademikoa Pertsonen garapenaren eta Kudeaketa ereduaren Koordinatzailea, I+T-ren Koordinatzailea, Kalitatearen Teknikoa	Kalitate politika onartu eta hau kontuan harturik, jardueren jarraipena egin
Koordinazio Batzordea	6 kiderekin osatuta:: Dekanoa, Koordinatzailea, Finantzen kudeatzailea, Talentuaren koordinatzailea, MTA-ren Koordinatzailea, I+T-ren Koordinatzailea,	Fakultatearen aktibitatea koordinatu eta kudeatzen duen organoa izateaz gain, Kontseilu Errektorearen aholkularia ere bada. Bere lan nagusia Enpresagintzaren garapena aurreikustea, planifikatzea eta sustatzea da, eta baita bere kudeaketaren garapena ere. Plan estrategiko burutzen du, urteroko Gestio Planaren bidez. Honetarako, Gestio Planaren emaitzak ebaluatzen ditu, erronka berriak eta jarduerak identifikatuz, hurrengo kurtsorako.
MU eta Enpresagintzaren kaptazio taldea (Eskaera Sortu)	6 eta 8 kideren artean: Parte hartzen dute: Talentuaren Koordinatzailea, MTA-ren Koordinatzailea, Komunikazioaren arduraduna, Dekanoa ete titulazio ezberdinen-irakaslea ikertzaileak (PDI)	Ikasle berriak erakartzeko plana diseinatu eta burutu, Fakultate edo Mondragon Unibertsitate mailan.
Pertsonen Garapenaren eta planifikazioaren Taldea	5 kide Pertsonen garapenaren eta Kudeaketa ereduaren Koordinatzailea eta Ezagutza arloen arduradunak Jardueren planifikazioan zehar, taldean sartuko dira ere Negozio Koordinatzaileak	Fakultateko pertsonen garapenerako estrategia bat burutu. Kurtsorako jardueren planifikazioa egin. Kurtsosan zehar, Negozio Unitate ezberdinek planteatuko behar eta kontingentzietan erantzuna eman.
Prozesuen Taldea	Hemen prozesuaren jabea eta taldearen kideak sartzen dira.	Prozesuaren ikuspegia kudeatu eta berrikusi. Adierazleen emaitzak aztertu. Hobekuntza proposamenak egin, prozesuaren kudeaketa egokirako.
Hausnarketa	Ad hoc taldea, hausnarketa	Aurreko Plan estrategikoaren emaitzak ebaluatu eta

Estrategikoaren Taldea	estrategikoa aurrera eramateko sortuta. Kontseilu Errektoreko eta koordinazio Kontseiluko kideak eta ZAL-Irakasle-Ikertzaileak osatutako taldea da.	berrikusi misioa eta bisioa Plan Estrategiko berrirako, erronka estrategikoak ikuspegi orokor batetik identifikatuz, eta helburu zehatzetara, estrategietara, adierazletara eta arduradunak egotera hedatuz.
Nazioarteko Harremanen Taldea	4 eta 6 kideren artean: Talentuaren Koord. MTA Koord, Nazioarteko harremanen arduraduna, ZAL, Irakasleak	Kolaboratu identifikatutako mugikortasun helburuen garapenean. Lagundu ikasleei, Irakasle-ikertzaileei edo ZAL-ari, mugikortasun tramite eta egonalditan. Mugikortasun beharrak identifikatu.
Titulazio Taldea	Aldatu egiten da titulazioaren arabera (3-5 pertsonen artean).	Burutu dagokion prestakuntza programaren diseinu, birdiseinua, sarrera eta irteerako profilak, tituluaren helburu eta kompetentziak, eta ikasketa planaren egitura zein antolaketa. Tituluaren jarraipen eta akreditazio prozesuen txostenak egin, bere jardueren kalitatea zainduz. Titulazioaren operatiba koordinatu eta kudeatu. Erantzun tituluaren ikasleen beharrei eta baita irakasleren klaustroak dauzkaten ere bai.
Ikerketa eta Transferentziaren Taldea	Ikerketa eta Transferentziaren Koordinatzailea eta ezagutza arloko lau arduradunak	Koordinatu ikerketa esparrua, transferentzia eta in-company prestakuntza. Fakultaterako estrategikoak diren esparruetako ikerketa saretan parte hartu. Bere esparruko Kudeaketa Planaren elaborazioan, hedapenean eta jarraipenean parte hartu.
Unibertsitate-Enpresa harreman taldea	Unibertsitate-Enpresa Harremanen arduraduna-Irakasle-ikertzaile bat, 3 ZAL, eta bekadun bat.	Koordinatu eta lideratu Enpresagintza Fakultateko harremanak inguruko enpresekin. Bilatu eta kudeatu Fakultateko ikasleek enpresetan egiten dituzten praktikak eta proiektuak.
Eraikin Taldea- Equipo de Edificios	6 pertsonekin osatuta.	Fakultateko eraikinen funtzionamendu egokia, mantenua eta egokitzapenak kudeatu.
ZAL	13 pertsonekin osatuta. (administrazioa, harrera, mantenua, informazio zerbitzuak eta liburutegia)	MUEko jarduera ekonomiko finantzario guztiak koordinatu eta kudeatu. Proporzionatu beharrezko baliabideak, bai akademikoak, ikerketarenak zein laguntza teknikoak, talde eta pertsona guztiei.
ZAL (Administrazioa-finantzak)	10 kide: Finantzen kudeatzailea eta 9 ZAL	MUEko jarduera ekonomiko-finantzario guztiak koordinatu eta kudeatu.
Idazkaritza Akademikoa	7 pertsonekin osatuta. Idazkari Akademikoa eta 9 ZAL	Idazkaritza Akademikoko jarduera propioak lideratu, ikaslea, fakultatean izena ematen duen/ matrikulatzen denetik, erakundea uzten duen arte. Bermatu prestakuntza programen egokitzapena indarrean dagoen legeriara.
SOT- Segurtasun eta lan osasunaren Batzordea	6 pertsonekin osatuta.	Kudeatu lan arriskuen prebentzioa fakultate osoan, pertsonen formazioa, partaidetza eta prestakuntza bermatuz.

* Alfabetikoki ordenatutako taldeak

1.4.2. Pertsonak

2017ko uztailean Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatea hurrengo pertsonekin zegoen osatuta:

5. Taula Enpresagintza Fakultateko pertsonak

Pertsonak	Kopurua
Lan bazkideak	68
Pertsona kontratatuak	16
Ikertzailean prestakuntzan	2
Bekadunak jornada erdian	11
GUZTIRA	97

1.5. GOBERNU ETA KUDEAKETA ORGANOAK

MU Enpresagintza Koop. Elkartek, hiru pertsona bazkide mota dauzka eta kopuru berean hartzen dute gobernuko organoetan: Lan bazkideak (Fakultateko Irakasle-ikertzaileak), erabiltzaileak (ikasleak) eta bazkide kolaboratzaileak (enpresak eta administrazioa). Osatzen duten organoak hauek dira:

- Batzar Orokorra. 1/3 lan bazkideak, 1/3 erabiltzaile bazkideak-ikasleak eta 1/3 bazkide kolaboratzaileak. Kooperatibako organo gorena da. Bertan, bazkideak bildu egiten dira deliberatzeko eta akordioak hartzeko bere konpetentziaren materietan edota hartu ditzakete ere, Kooperatibaren egituran aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituzten erabakiak. 200 kide baino gehiagok osatzen dute. Kide kopuru osoa aldatu egiten da lan bazkide kopuruaren arabera, boto kopurua, datu hortik kalkulatzen baita.
- Kontseilu Errektorea. 12 kiderekin osatuta: lan bazkideen 4 ordezkari, 4, bazkide erabiltzaileena eta 4, bazkide kolaboratzaileena. Gainera, Dekanoa edo Fakultateko Zuzendari Orokorra, Mondragon Unibertsitateko Errektorea eta Idazkari Teknikoa egoten dira. Organo kolegiatu honi dagokio eskusiboki, Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkapena. Fakultate guztiak erabil ditzake, legez edo Estatutuetan Asanblada Orokorrarako erreserbatuta daudenak izan ezik. Kontseilu Errektoreko kideak Asanblada Orokorra osatzen duten bazkide guztiek aukeratzen dute. Kide hauetatik, Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria aukeratzen dira. Lehendakaria entitatea ordezkatzeko duena izango da.
- Zaintza Batzordea. 3 kiderekin osatuta: 2 lan bazkideen ordezkariak eta bazkide kolaboratzaile bat. Bere funtzioa urteroko kontuak berrikustea da eta nahitaezko txosten bat ematea hauen gainean eta baita soberakinen banaketaren gainean edo galeren inputazioari buruz, Asanblada Orokorrean aurkeztuak izan aurretik. Era berean, Kooperatibako liburuak berrikusten dituzte.
- Kontseilu Soziala. 6 kiderekin osatuta. Bost, lan bazkideak dira eta bat, Kontseilu Errektoreko lan bazkideen ordezkaria. Hau, era berean, organoaren lehendakaria izango da. Hemen egoten dira ere, Dekanoa edo Fakultateko Koordinatzaile orokorra eta Idazkari teknikoaren kargua okupatzen duen pertsona. Kontseilu Errektorearen eta Koordinazio Taldearen organo aholkularia eta kontsultiboa da, esparru soziolaboralarekin erlazionatutako gai guztietan.

2. KUDEAKETA EREDUA

2.1. ESTRATEGIA

Fakultateak, hainbat Hausnarketa Estrategikotatik pasatu da, eta beti honako hauen bila ari izan da: bere jardueraren hobekuntza jarraia, posizionamendu hobe merkatuan eta gizartean, eta bere izatearen arrazoien eta bere identitate ezaugarrien gaineko hausnarketa. Gaur gun, Fakultateak martxan dauzka jarrita bere azken Hausnarketa Estrategikotik 2016-2019, eratorritako jarduerak.

2.1.1. Misioa

Mondragon Unibertsitatearen baitan eraldaketa lehiakorrean eta ekintzailertzan zentratuta dagoen unibertsitate proiektu kooperatiboa gara. Bertan, pertsona konprometituak gaude. Batetik, Ikasle eta profesionalen konpetentziak eta baloreak lortzen laguntzen dizkiegu eta bestetik, ikertu eta ezagutza transferitzen diegu enpresa eta erakundeei. Ingurugunearen lehiakortasuna eta garapen sozioekonomikoa hobetzen lagundu nahi dugu; euskal gizartearekin konpromisu berezia dugularik.

2.1.2. Bisioa eta Balioak

Enpresagintzaren etorkizun Ikuspegia 2020rako, 10 helburu estrategikotan zehazten da, hauetatik 7, negozioarekin lotuta daude eta beste hirurak erakundearekin eta bere prozesuekin.

NEGOZIO HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Eskaintza akademiko bereizgarria, erakargarria eta jasangarria izan. Honek hurrengo inplikatzeko du:
 - Gradu, master eta heziketa zikloetako gaur egungo programak indartu, titulazio bakoitzaren ezaugarriak bereiztuz eta ikasleen ikasketa esperientziaren hobekuntza etengabea bilatuz.
 - Planaren ibilbidean, gutxienez, titulazio akademiko berri bat garatu, Fakultatearen lehentasun estrategikoekin bat datorrena.
2. Gradu eta masterretako hautagai kopurua handitu eta ikasle profila dibertsifikatu. Zehazki, Enpresagintza 2020ko planteamendua hau da:
 - EAZG eta masterren eraginpeko eremu geografikoa zabaltzea.
 - Dibertsitate handiagoa lortu LEINNEko ikasleen sarrera profilean, profil teknologikoen presentzia handiarekin.
 - Motibazio eta konprometuz maila altua duten ikasle profila erakarri (bereziki EAZG -n)
3. Profesionalentzako prestakuntza negozioan hazi, enpresen beharretara bideratutako eskaintza espezializatuago eta malguago baten bitartez.
4. Ezaguna izan enpresen bazkide estrategiko bezala, bere prestakuntza, ezagutza eta berrikuntza beharretan, kudeaketaren hainbat esparrutan.
 - Akonpainamendu eta transferentzia eredu bat garatu enpresentzat epe luzerako, Euskadiko ingurune geografiko barruan kokatutako sektore estrategikotako enpresa ertainetan ardatzuta egongo dena.

5. Erreferentea izan Fakultateko ezagutza arlo estrategikoetan eta talde erreferente akademikoa mantendu, Ekonomia Sozialaren eta Kooperatibismoaren esparruan.
6. Ekintzailtza ekosistemen garapenean lagundu Bidasoan eta Oñati – Mondragon-en.
7. Fakultate nazioartekoagoa izan eta arrakastarekin aboratu LEINNez nazioarteko hedapen prozesua eta Kooperatibismo programak

ERAKUNDEAREN ETA BERE PROZESUEN HELBURU ESTRATEGIKOAK

8. Erakunde lerrokatua eta konprometitua izan Fakultateko etorkizun proiektuarekin. Honek, hau inplikatzeko du:
 - Pertsona gaituak, motibatuak eta berritzaileak.
 - Fakultatearen egitura antolatzailearen moldaketa bere errealitate berrira. Jabetutako taldeak modu eraginkor eta koordinatuan definitutako helburu estrategikoei aurre egiteko.
9. Enpresagintza erreferentzia erakunde bezala kokatzen den eragin sarea sortu modu proaktiboan eta balioa sortzen duten aliantzak indartu.
10. Aprobetxatu neurri handiagoan lankidetzak aukerak MUko beste Fakultate batzuekin.

Era berean, Enpresagintza Fakultateak bereak egiten ditu Mondragon Unibertsitateko balioak, bere identitatearen elementu zentrala bezala. Balio hauek, garatu egiten dituzte Mondragoneko balio korporatiboak.

- **Kooperazioa eta Elkarren arteko kooperazioa:** Jabeak eta protagonistak izatea, “zurea den gauza batean” lan egitea suposatzen du. Beraz, Unibertsitatea, elkarren arteko proiektu bezala ikusten da. Honek, osatzen duten zentroen interkooperazioa sustatzen du eta baita beste kooperatiba eta erakundeekin ere.
- **Berrikuntza:** Aukera berrien bilaketaren jarrera iraunkorra, jarduten ari garen esparru guztietan, progresurako beharrezko baldintza bezala; aldaketa onartuz, unibertsitate bizitzan beharrezkoa eta ezinbestekoa den zerbait bezala.
- **Partaidetza:** Pertsonen partaidetza gure unibertsitate proiektuaren garapenean ez da bakarrik eskubide bat, betebeharrak baizik, eta autoexigentzia zein erantzukizuna eskatzen du. Lan bazkideen, ikasleen, enpresa kolaboratzaileen partaidetza, izaera iraunkorreko abantaila lehiakorra da.
- **Erantzukizun Soziala:** Egiten jakitea eta akumulatutako ezagutzak transmititzea, unibertsitatearen barruan zein kanpoan, aberastasuna era solidarioan banatzeko modu bat da, eta eragina dauka batez ere gure ingurune gertuenean, honen hobekuntza eta garapenarekin solidarioak sentitzen garelako, sentiaraziz.
- **Pertsonaren garapena eraldaketa sozialerako:** Pertsonak prestatu gizartearen eraldatzearen agente aktiboak izateko eta progresu humanistikoan, teknologikoan eta ekonomikoan laguntzeko; zuzenagoa, solidarioagoa eta bidezkoagoa izan behar den gizarte baten markoan.


Eta Mondragon Unibertsitateko kultura sustatzen du, premisa hauetan oinarrituta:

1. **Kultura kooperatibista:** pertsonan zentratuta, eta autokudeaketan, auto exigentzian, solidaritatean eta gardentasunean oinarrituta.
2. **Bikaintasuna:** Irakaskuntzan, prestakuntza prozesuan, ikerketan, zerbitzuen prestakuntzan eta kudeaketan.
3. **Eraginkortasuna lanean:** Zorroztasuna, emaitzetara bideratutako zorroztasuna, konpromisua helburuekin.
4. **Euskalduna:** Euskal Herriarekin eta bere kultura, hizkuntza, ekonomia eta teknologia garapenarekin konprometituta.
5. **Irekia eta unibertsala:** Kooperazioa eta hartu-emanak, zentroekin, pertsonekin eta mundu osoko entitateekin, pentsamendu unibertsal aurreratuena sustatzeko helburuarekin.
6. **Bokazio soziala:** elitista ez dena. Aukera berdintasuna, aurrerapen kolektiboa eta lana taldean.
7. **Zerbitzua:** jarrera, malgutasuna, konpromisua enprekin/ erakundeekin eta gizartearekin.
8. **Berrikuntza eta ekintzaitza:** sormena eta jarduera berriak sustatuz.
9. **Hurbiltasuna eta kooperazioa ikasleekin:** euren garapen integrala eta autonomia sustatuz.
10. **Enpresa eta erakundeekin elkarren arteko harreman estua.**
11. **Sentsiblea eta konprometitua ingurune naturalarekin eta sozialarekin.**

2.2. KUDEAKETA SISTEMA

Jarraian, modu grafikoan erakusten dugu Fakultateko kudeaketa sistema

3. Irudia. Kudeaketa sistema



2.3. ENPRESAGINTZA FAKULTATEAREN KALITATE POLITIKA

Mondragon Unibertsitateko Plan Estrategikoan jasotzen den bezala eta gure Fakultateak partekatzen duena, kalitatea, bertan planteatutako erronkarik garrantzitsuenetako bat da.

Gure Fakultateak, Kalitatea ulertzen du, bere interes talde guztiak asebetetzen duen kudeaketa eredu bezala; eta hurrengo printzipiotan oinarritzen da:

- ✓ Kalitatea da, elkarren artean erlazionatutako prozesuen sistema integratzailea, prozesuen bidezko kudeaketa. Guzti honek ahalbideratu behar du Fakultateko pertsonen asebetetzea, bere bezeroena eta zerbitzuak zein produktuak eskaintzen dizkien beste interes talde batzuen.
- ✓ Kalitate sistema, mekanismo integratzaile bezala ulertzen da, pertsonen komunikazio egokian eta prozesuen bidezko kudeaketan oinarritzen dena. Honekin posible izango da azterketa eta hausnarketa Fakultateko esparru eta jarduera guztietan (Prestakuntza Arautua, Prestakuntza Iraunkorra, Ikerketa eta Transferentzia, Administrazioa, Kudeaketa).
- ✓ Kalitate sistema partehartzailea da, eta bere pertsona guztien partaidetza sustatu eta erraztu egiten du (irakasleak eta irakasleak ez direnak), ikasleak eta enpresa-erakundeak.
- ✓ Kalitate sistemak hainbat tresna dauzka (kalitate Batzordea, Prozesu taldeak, Adierazleak...), neurketa eta jarraipena egiteko. Horrela, egokitzapenak eta beharrezko aldaketak egin ahal izango dira, bai prozesuetan, bai Fakultateko antolaketan.

Kalitatezko printzipio guzti hauen helburu nagusia, KBBS-aren prozesuak dinamizatzea da eta batez ere, Fakultateko pertsonen eta taldeen lanaren jarraipena, bere jarduera osoaren hobekuntza jarraian.

Hurrengo dokumentuan, Kalitatearen Politika eta helburuen onarpena jasotzen da:

ENPRESAGINTZA FAKULTATEAREN KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Enpresagintza Fakultatea, Mondragon Unibertsitatean integratuta dagoen proiektu partekatua da. Bere eginkizunetarako oso pertsona inplikatuak ditu. Gure erakunde eredu esentzia kooperatiboan oinarritzen denez, gure erakunde oinarrituta dago, pertsonengan, konfiantzan, komunikazioan, talde lanean, konpromisuan, lidergo partekatuan, solidaritatean, erantzukizunean, (auto) exigentzian eta erabakitze gaitasunean.

*Pertsona guztien partaidetza sustatzen dugu, **kalitatezko helburuak** lortzeko eta barne zein kanpoko **bezeroaren asebetetzea** hobetzeko. Era berean, **hobekuntza jarraia**, funtsezko faktorea kontsideratzen dugunez, uste dugu, ezinbestekoa dela **Prozesutan oinarritutako Kudeaketa Sistema edukitzea**. Honek, kalitatezko tresna ezagunak eta partekatuak eduki behar ditu, pertsonen kolektiborako, ikasle eta enpresa kolaboratzaileetarako.*

Gure konpromisoa kalitatearekin betetzeko, gure bezeroen espektatibak identifikatuko ditugu eta baita bere bilakaera denboran zehar ere. Hori kontuan harturik, euren beharren eta espektatiben arabera produktu eta zerbitzuak garatuko ditugu; berrikuntza zein hobekuntza, ongizate sozialaren faktoreak izango direlarik.

Gure proiektu partekatuaren garapenean, pertsonak garrantzitsuak direla dakigunez, Enpresagintza Fakultateak, bere pertsonengan sustatu, ebaluatu eta baloratu egiten ditu, jarrera positiboa, erantzukizuna, konpromisoa, disponibilitatea, malgutasuna eta bere lidergo eta ahalduentzako gaitasuna, eta motibazioa. Printzipio hauek kontuan hartzen dira, bai fakultatean integratuta dauden pertsonen garapenean zein pertsona berriak hautatzeko eta inkorporatzeko.

Arreta berezia jartzen dugu, fakultatean sartzen diren pertsonen gaitasunetan, batez ere, hurrengo aspektuetan: gaitasun pedagogikoan, ikerketan, negozio aukera berriak sortzeko ahalmenean, kudeatzeko gaitasunean eta kalitatezko zerbitzuan. Eta hau horrela da gure misioak hurrengo jasotzen duelako "Eraldaketa lehiakorrean eta ekintzailertzan zentratuta dagoen Mondragon Unibertsitatearen barne gauden unibertsitate proiektu kooperatiboa gara. Bertan, pertsona konprometitua gaude. Batetik, Ikasle eta profesionalei konpetentziak eta baloreak lortzen laguntzen dizkiegu eta bestetik, ikertu eta ezagutza transferitzen diegu enpresa eta erakundeei. Ingurugunearen lehiakortasuna eta garapen sozioekonomikoa hobetzen lagundu nahi dugu; euskal gizartearekin konpromisu berezia dugularik".

Unibertsitateen Lege Organikoak, bikaintasuna ikerketan eta kalitatea irakaskuntzan, gero eta gehiago eskatzen dute Doktore titulazioa daukaten irakasleak. Betekizun hau betetzeko, Enpresagintzak, sustatu egingo du doktoreen inkorporazioa, bultzatu egingo du Irakasleek Doktore gradua edukitzea eta saiatu egingo da areagotzen, Pertsona Ikertzaileak Prestakuntzan (PIF/PIP)

Prestakuntza Iraunkorreko jarduera garatzeko erronka, bizitza osoan zehar ikasi behar den ideiarekin lerrokatuta dagoena, eta enpresek eskatzen duten prestakuntza espezializatuarekin bat datorrena, goi mailako titulazioa eta kontrastatutako esperientzia profesionala daukaten pertsonak inkorporatzea eskatzen digu.

*Guzti honengatik, Koordinazio Batzordea konprometitu egiten da gure erakunde kudeatzeko, eta horretarako, **Kalitate Politika hau lideratu eta sustatuko du, beste erakunde eta agenterekin izandako kooperazioaren bitartez**. Beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu, politika honetan aurreikusitako helburu guztiak bete daitezzen eta hau gauzatu egingo da urteroko Kudeaketa Planean.*

*Koordinazio Batzordea eta bere izenean Dekanoa: Lander Beloki Mendizabal
Oñati, 2018ko urtarrilaren 12an*

2.4. INTERES TALDEAK

Prozesu guztiek eta Fakultatearen kudeaketa berak, oinarritzko osagarri bat daukate eta hau da, bere **enfokea euren Interes Taldeetarantz**, inportanteenak hauek direlarik: ikasleak, Fakultateko pertsonak, enpresak, entitate kolaboratzaileak, erakundeak eta Gizartea orokorrean. Fakultateko KBBSa, eta beraz, bere prozesuen bidezko kudeaketa, aseguratuta egiten da, bere interes taldeen/bezeroen beharrak eta espektatibak zein prozesuei eta zerbitzuei dagozkien lege eta araudi eskakizunak bete egiten direla eta barne eskakizunak izango direla.

Jarraian, Fakultateko interes taldeak deskribatzen dira:

- ✓ Ikasleak: gaur egungo ikasleak eta lehengoak.
- ✓ Pertsonak: Fakultateko kanpus/ sede guztien Irakasle-ikertzaileak (PDI) eta ZAL (PAS)
- ✓ Enpresak: Fakultateak lankidetzaren harremana dauka hurbileko eta kanpoko enpresekin hurrengo arloetan kolaboratzeko: prestakuntza duala, proiektuak eta praktikak, prestakuntza jarraia, ikerketa proiektuak eta transferentzia, eta abar.
- ✓ Entitate kolaboratzaileak irakaskuntzan: Teamlabs, Florida Unibertsitaria, Tiimiakatemia.
- ✓ Erakundeak: Eusko Jaurlaritzak, Unibasq, Aldundiak, Gobernu Zentralak, Europar Batasuna, Eskualde eta Udal Erakundeak.
- ✓ Gizartea orokorrean: Fakultatearen aktibitateak inpaktua duen ingurune hurbila. Ohiko harremanak egoten dira euren artean.

Interes taldeek parte hartzen dute Fakultateko jardueretan. Gainera prozesu guztiak osatu egiten dira kontu emate jardueraren batekin. Hemen, prozesuaren jabeak bertan identifikatutako hobekuntza proposamenak esplizitatu egiten ditu. Kontu emate hau, interes taldeei zuzenduta dago. (Ikusi 4 atala)

2.5. PROZESUEN BIDEZKO KUDEAKETA

Lehen komentatu dugun bezala, Fakultateak prozesutan oinarritutako kudeaketa sistema bat dauka.

2.5.1. Prozesuen egitura eta ezaugarriak

